



Nola erabili?

2. Erabili “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioa “LIVE” sistema eragile gisa.

Horrela, “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioa zure ekipo informatikoan erabil dezakezu instalatu gabe. Ekipoa berrabiaraztean, dena galtzen da ez baitago instalatuta. Horretarako, egin honako hauek:

- “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioaren bertsioaren [ISO fitxategia jaitsi](#) eta bihurtu USB abiarazle batean. Horretarako, “Rufus”, “Yumi”, “UNetBootin” edo “Linux Mint” moduko GNU/LINUX sistema eragile gehienek duten “USB irudi-idazlea” aplikazioen bat erabil dezakezu.
- Abiarazi zure ekipo informatikoa USB unitatetik (“BIOS”-ean abiarazte-ordena aldatu beharko duzu; horretarako, ordenagailua itzalita dagoela, USB unitatea sartu eta, ekipoa piztean, abiarazte-menua (“boot menu”) agertzeko, hainbat segundotan zehar, sakatu > “F8” (edo “F9” edo “F10” edo “F11” edo “F12”) abiarazte-menua agertu arte, edo sakatu > “Supr” (edo “F2”) “BIOS”-ean sartzeko.
 - “BIOS” > “BOOT” atalean, aldatu abiarazte-ordena (“boot order”) eta jarri lehenengo aukera gisa honako hau:
 - “UEFI: SMI USB DISK”

Zure ekipo informatikoa USB unitatetik abiaraztean, aukeratu honako hau:

- “Boot Live system” > “(initramfs) /cow format specified as ‘overlay’ and no support found” agertzean, sakatu > “Ctrl” “d”
- “Hasi saioa” leihoan, sartu > “user”/”Us€r” saioa
- Instalatu eguneratzeak; horretarako, sakatu > “eguneraketak” abiarazlea
- Instalatu “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioaren aplikazio sorta; horretarako, sakatu > “instalazioak” abiarazlea
 - **“HARROBIX_MKT”** bertsioan > instalatu “Davini Resolve” aplikazioa; horretarako, zabaldu “davinci” karpeta eta jarraitu “davinci instalatzeko pausoak”